Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko abenduaren 30a, asteartea — 249 — Martes, a 30 de diciembre de 2025

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

27/2025 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren zenbait aldaketa erregelamendu bidez garatu, lan etekinen atxikipen taulak aldatu eta 2026an aplikatzekoak diren eguneratze koefizienteak onesten dituena.

Foru dekretu honek hiru helburu ditu: batetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten dituen maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren zenbait alderdi garatu eta haien barruan sartzeko; bestetik, lan etekinen atxikipenak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 75. artikuluko 1. apartatuan jasotako tarifaren aldaketara egokitzea; eta, azkenik, ondare elementuen balioak eguneratzeari begira 2026tik aurrerako ondorioekin hala pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan nola sozietateen gaineko zergan aplikatuko diren koefiziente berriak onestea.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamendua 1. artikuluan aldatzen da, lau ordinaletan banatuta. Ordinal bakoitzean aldaketen eragin data desberdin bat jasotzen da, zerga erreformaren foru arauan ezarritakoarekin bat. Horrela, lehen ordinalean 2025ean indarrean jartzekoak diren aldaketak jasotzen dira; bigarren ordinalean biltzen dira 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarriko direnak; hirugarren ordinalak 2025etik 2029ra bitarteko zergaldietarako aldaketak jasotzen ditu; eta, azkenik, laugarren ordinalean 2025etik 2035era bitarteko zergaldietarako aldaketak ezartzen dira.

2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin sartzen diren aldaketen artean honako hauek aipa daitezke, besteak beste:

Batetik, garatzen da zergaren foru arauaren 16. artikuluko f) letran telelanarekin lotuta jasotzen den aurreikuspena, 13 bis artikulu bat gehituz erregelamenduari, zeinaren arabera langileak telelanaren modalitatean jarduteagatik jasandako gastuak konpentsatzeko haren esku jartzen diren zenbatekoak diruzko etekintzat hartzen baitira, kanpoan utzita Hitzarmen Kolektibo bidez une bakoitzean ezarritakoak gainditzen ez dituztenak, betiere gastu horien merkatu balioaren mugaraino. Kooperatiba sozietateen kasuan, eta bazkide langileei edo lan bazkideei dagokienez, entrega hori entitatearen funtzionamendua eta araubidea erregulatzen dituzten arauetan xedatutakoaren arabera egin beharko da.

34. artikulua aldatzen da kapital higiezinaren etekin jakin batzuen tratamendua zergaren foru arauaren 32. artikuluan jasotako aurreikuspenetara egokitzeko, eta helburua da zehaztea zein gastu diren kengarriak eta zer hobari aplikatu daitezkeen 32. artikulu horretan aurreikusitakoetatik.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Decreto Foral 27/2025, de 23 de diciembre, por el que se desarrollan reglamentariamente diversas modificaciones de la Norma Foral 1/2025, de 9 de mayo, se modifican las tablas de retenciones de los rendimientos de trabajo y se aprueban los coeficientes de actualización aplicables en 2026.

El presente decreto foral tiene por objeto modificar el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades para incluir en los mismos los aspectos pendientes de desarrollo reglamentario de la Norma Foral 1/2025, de 9 de mayo, por la que se aprueban la reforma del sistema tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y otras modificaciones tributarias, adecuar las retenciones de los rendimientos de trabajo a la modificación de la tarifa contenida en el apartado 1 del artículo 75 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y, por último, aprobar unos nuevos coeficientes de actualización de valores de los elementos patrimoniales tanto para el impuesto sobre la renta de las personas físicas como para el impuesto sobre sociedades, ambos, con efectos a partir del 2026.

La modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se incluye en el artículo 1. Dicho artículo se divide en cuatro ordinales. Cada ordinal se corresponde con un momento distinto de efectos de las modificaciones, en concordancia con lo establecido por la norma foral de reforma fiscal. El ordinal primero se corresponde con aquellas modificaciones que entran en vigor en el 2025; el ordinal segundo con las que entran en vigor a partir del 1 de enero de 2026; el ordinal tercero con las que entran en vigor para los periodos impositivos 2025 a 2029; y, por último, el ordinal cuarto se corresponde con las modificaciones establecidas para los periodos impositivos 2025 a 2035.

Con efectos a partir del 1 de enero de 2025 se incluyen diversas modificaciones, entre las que cabe citar las que se incluyen a continuación.

Se desarrolla la previsión contenida en la letra f) del artículo 16 de la norma foral del impuesto, adicionando un artículo 13 bis al reglamento, que incluye como rendimientos de naturaleza dineraria las cantidades puestas a disposición de la persona trabajadora en concepto de compensación por los gastos soportados por esta como consecuencia de su trabajo desarrollado en la modalidad de teletrabajo, excepto aquellas que no excedan de los importes establecidos en cada momento por el Convenio Colectivo, hasta el límite del valor de mercado de los citados gastos. Cuando se trate de sociedades cooperativas y respecto a sus personas socias trabajadoras, o socias de trabajo, dicha entrega deberá efectuarse de acuerdo con lo dispuesto por las normas que regulan el funcionamiento y régimen de la entidad.

Se modifica el artículo 34 para ajustar el tratamiento de determinados rendimientos de capital inmobiliario a las previsiones contenidas en el artículo 32 de la norma foral del impuesto, explicitando los gastos deducibles y las bonificaciones aplicables de entre las previstas en el citado artículo 32.

EK\CV GAO-I-2025-08991

54 ter artikulua gehitzen da zehazteko telelanaren kasuan ondasunak gauzazko lan etekintzat hartzeko muga 1.000 eurokoa izango dela.

Kenkarien arloan, 63 bis artikulu berria sartzen da ezarrita uzteko zer baldintza bete behar den adingabeak edo mendekotasun edo desgaitasun maila jakin bat duten pertsonen zaintze lanetan aritutakoak zaintzaile profesionaltzat hartzeko; era berean, 63 ter artikulua gehitzen da eta bertan ezartzen da zer baldintza hartuko diren kontuan adingabeak zaintzen aritutako emakumeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu zerbitzu publiko batzuetan inskribatzea lan merkatura itzultzearen parekoa dela ulertzeko.

Kenkariekin jarraituz, erregelamenduaren V. tituluari I bis kapitulu berria gehitzen zaio, 63 quater artikulua dela medio, eta haren bitartez zehazten da nola frogatu behar duten zergadunek genero indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima direla zergaren foru arauaren 86. eta 87. artikuluetan aurreikusitako kenkariak aplikatzeko (ohiko etxebizitza alokatzeagatik eta ohiko etxebizitza eskuratzeagatik, hurrenez hurren), eta familia unitateari buruz 97. artikuluan jasotako modalitateen ondorioetarako.

Kenkariekin jarraituz, zergaren foru arauaren 87. artikulua aldatu izanak berekin dakar erregelamenduaren 66. artikulua aldatzea ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatutako kasuen erregelamenduzko garapena egokitzeko.

Bestalde, erregelamenduaren V. tituluari II bis kapitulua gehitzen zaio. Zehazki, 69 bis artikulua sartzen da zergaren foru arauaren 87 bis artikulua garatzeko. Artikulu berriak beste kenkari bat aurreikusten du, errentatzaileak aplikatzekoa, eta desgaitasun edo mendekotasun egoeran daudenei errentan emandako etxebizitza egokitzeko birgaitze babestuagatik aplikatzen da.

Era berean, V bis titulu berri bat gehitzen zaio erregelamenduari, 71 ter artikulu batekin. Bertan, zehazten da zein kasu gehigarri ez diren hartuko mantenu ekonomiko esklusiboaren frogatzat zergaren foru arauaren 97.1 artikuluko D) letran aurreikusitako familia unitatearen modalitatearen ondorioetarako.

Zazpigarren xedapen iragankorra aldatzen da, 65 urtetik gorako pertsonek etxebizitza kostu bidez eskualdatzetik eratorritako ondare irabazien salbuespenari buruzko 42. artikulurako igorpenean doikuntza tekniko bat sartzeko.

Hamalaugarren xedapen iragankor bat dela medio, irizpideak ezartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten dituen maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren azken xedapenetako bigarrena aplikatzeko, ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik araututako kenkariarekin lotuta, bai 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako erosketa kasuetarako eta bai data hori baino lehenagoko erosketekin parekatutako kasuetarako.

Azkenik, hamabosgarren xedapen iragankor bat gehitzen da ezartzeko zein hurrenkerari jarraituko zaion gizarte aurreikuspeneko sistemetara soberan egindako ekarpen eta kontribuzioak aplikatzeko, 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen murriztu ez direnean.

Bigarren ordinala 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko da indarrean, eta bi aldaketa sartzen ditu. Lehenengoan idazketa berria ematen zaio 45. artikuluari, zeinean garatzen baita ohiko etxebizitzaren eskualdaketan lortutako irabazia berrinbertitzeagatik aplikatzen den salbuespena, eta, zehatzago esanda, ondare irabazi horren salbuespena aplikatzea ahalbidetzen duten zirkunstantzia gehigarriak. Bigarrenean, lan etekinen atxikipenen taula berriak zehazten dira, erregelamenduaren 100. artikuluan jasotakoak, behin 100eko 2 deflaktatu ondoren.

Hirugarren ordinalean, hamabosgarren xedapen gehigarri berri bat sartzen da 2025etik 2029ra bitarteko zergaldietarako ondorioekin, eta haren helburua da zergaren foru arauaren be-

Se incluye un artículo 54 ter que concreta en 1.000 euros el límite para considerar la entrega de bienes como rendimiento de trabajo en especie en el caso del teletrabajo.

En el ámbito de las deducciones se incluye un artículo 63 bis que determina el requisito de la consideración de cuidadora profesional en el ámbito de la deducción por cuidado de menores o de personas con determinado grado de dependencia o discapacidad, y se adiciona un artículo 63 ter que establece las condiciones para que la inscripción en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo u otros Servicios Públicos de Empleo se consideren como reincorporación al mercado laboral de la mujer tras el cuidado de menores.

Se incorpora un nuevo capítulo I bis al título V del reglamento, con un artículo 63 quater, para determinar la acreditación de la condición de víctima de violencia de género o violencia doméstica de las personas contribuyentes a efectos de la aplicación de la deducción por alquiler de vivienda habitual prevista en el artículo 86, a efectos de la deducción por adquisición de vivienda habitual prevista en el artículo 87 y a efectos de las modalidades de unidad familiar previstas en el artículo 97, todos ellos, de la norma foral del impuesto.

Siguiendo con las deducciones, como consecuencia de la modificación del artículo 87 de la norma foral del impuesto, se modifica el artículo 66 para ajustar el desarrollo reglamentario relativo a los supuestos asimilados a adquisición de vivienda habitual.

Por otra parte, se adiciona un capítulo II bis al título V del reglamento, con un artículo 69 bis, para desarrollar el artículo 87 bis de la norma foral del impuesto, que incorpora una nueva deducción por rehabilitación protegida para la adecuación de la vivienda arrendada a las personas discapacitadas o dependientes, aplicable por el arrendador.

Asimismo, se añade un nuevo título V bis en el reglamento, con un artículo 71 ter, que concreta supuestos adicionales que no se considerarán prueba del mantenimiento económico exclusivo a los efectos de la modalidad de la unidad familiar prevista en la letra D) del precitado artículo 97.1 de la norma foral del impuesto.

Se modifica la disposición transitoria séptima para incluir una ajuste técnico en la remisión al artículo 42 sobre la exención de las ganancias patrimoniales derivadas de transmisiones onerosas de vivienda por personas mayores de 65 años.

Se adiciona la disposición transitoria decimocuarta para incluir criterios de aplicación de la disposición final segunda de la Norma Foral 1/2025, de 9 de mayo, por la que se aprueban la reforma del sistema tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y otras modificaciones tributarias, en relación con la aplicación de la deducción por inversión en vivienda habitual, tanto para la adquisición como para los supuestos de asimilación a la adquisición de la vivienda habitual de fecha anterior a 1 de enero de 2026.

Por último, se incorpora una disposición transitoria decimoquinta para establecer el orden de aplicación de los excesos de aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social que no hayan sido objeto de reducción con anterioridad a 1 de enero de 2025.

En el ordinal segundo, cuya entrada en vigor se establece a partir del 1 de enero de 2026, se introducen dos modificaciones. La primera contiene la nueva redacción del artículo 45 que desarrolla la exención de la ganancia obtenida en la transmisión de la vivienda habitual por reinversión y más concretamente las circunstancias adicionales que permiten la aplicación de la exención de dicha ganancia patrimonial. La segunda incluye las nuevas tablas de retenciones de los rendimientos del trabajo incluidas en el artículo 100 del reglamento, una vez aplicada la deflación del 2 por 100.

En el ordinal tercero, con efectos para los periodos impositivos 2025 a 2029, se introduce una nueva disposición adicional decimoquinta que desarrolla la disposición adicional cuadragé-

EK\CV GAO-I-2025-08991

rrogeita hirugarren xedapen gehigarria garatzea zerga autolikidatzera behartuta ez dauden zergadunek hura aurkeztu eta haren kuota osoa ez denean nahikoa zergaren foru arauaren 86. artikuluan ohiko etxebizitza alokatzeagatik aurreikusten den kenkaria osorik edo partez aplikatzeko.

Azkenik, laugarren ordinalean, 2025etik 2035era bitarteko zergaldietarako ondorioekin, V. kapitulua sartzen da V. tituluaren barruan. Horretarako, 71 bis artikulua gehitzen du, mugikortasun jasangarriaren eta efizientzia eta trantsizio energetikoaren eremuan zergaren foru arauaren 90 quinquies artikuluan jasotako kenkaria garatzea xede duena. Bertan, ezartzen da zer beharkizun bete behar diren txatarrera eramaten den ibilgailuari dagokionez, zergaren foru arauan aurreikusten den 100eko 10eko kenkari handitua aplikatu ahal izan dadin.

Bestalde, 2. artikuluan Sozietateen gaineko zergaren Erregelamenduaren aldaketa garatzen da. Artikulu horrek, era berean, bi ordinal ditu. Lehenengoan jasotzen dira 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan aplikatuko diren aldaketak. Bigarren ordinalean, berriz, 2025eko urtarrilaren 1etik 2035eko abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietarako aldaketak biltzen dira.

Lehen ordinalean, 35 ter artikulua berridazten da, ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzeari buruzkoa hain zuzen ere, eta zergaren foru arauaren 64 bis artikuluaren erregelamenduzko garapena gehiago zehaztea du helburu. Era berean, 37 duodecies artikulua gehitzen da bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak ezartzeagatik aplikatzen den kenkariarekin lotuta, zergaren foru arauaren 66 quater artikuluan aurreikusitakoa garatzeko Azkenik, 43. artikulua aldatzen da, artikulu horri 3. apartatu bat gehitzeko. Hala, ezartzen da zergaren foru arauaren 115. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoa, higiezinen errentamendu jarduera kualifikatua egiten duten entitateen araubideari buruzkoa, Eusko Jaurlaritzaren programen barruan edo Gipuzkoako udalerriek tokiko talentua itzularazteko onetsitakoen esparruan egiten diren etxebizitza errentamenduei eta lagapenei ere aplikatuko zaiela.

2. artikuluko bigarren ordinalak 36. artikulua aldatzen du, hain zuzen ere, garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzeko proiektuekin lotutako inbertsio eta gastuen kenkariak garatzen dituena, eta haren helburua da artikulu horren erregulazioa egokitzea azaroaren 24ko 2/2025 Foru Arauak zergaren foru arauaren 65. artikuluan sartu duen aldaketara (2/2025 Foru Araua, zeinaren bidez Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia apirilaren 29ko 3/2025 Legeak Euskadiko Erkidego Autonomoarekiko Ekonomia Itunean sartu dituen aldaketetara egokitzen baita eta beste zerga aldaketa batzuk onesten baitira).

Aipatutako 2/2025 Foru Arauak 65 bis artikulua sartu izanak zergaren foru arauan, beharrezko egiten du, hura garatzearren, 36 bis artikulu bat sartzea erregelamenduan, garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzen duten proiektuen finantzaketan parte hartzeari buruzkoa hain zuzen.

Era berean, xedapen iragankor bakarrak xedapen iragankor bat ezartzen du 2025eko ekitaldian hasitako garapen jasangarria, ingurumen inpaktuaren murriztapena, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzen duten proiektuei lotutako inbertsio eta gastuengatiko kenkaria egiaztatzeko eskaera egiteko.

Azkenik, fiskalitate berdeari buruzko neurriak betetzen direla ziurtatzeko prozesuan segurtasun juridikoa bermatze aldera –aurreikuspena da horiek 2025etik 2035era bitartean egotea indarrean–, aipatutako maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat, hirugarren xedapen gehigarri bat gehitzen zaio foru dekretu honi.

sima tercera de la norma foral del impuesto, para aquellos contribuyentes que no teniendo la obligación de realizar la autoliquidación por el impuesto, la presenten con el resultado de una cuota íntegra insuficiente para aplicar la totalidad o parte de la deducción por alquiler de vivienda habitual prevista en el artículo 86 de la norma foral del impuesto.

Por último, en el ordinal cuarto, con efectos para los periodos 2025 a 2035, se introduce un capítulo V en el título V, que incorpora un artículo 71 bis, para desarrollar la deducción recogida en el artículo 90 quinquies de la norma foral del impuesto, en el ámbito de la movilidad sostenible, eficiencia y transición energética. En el mismo se incluyen los requisitos que se debe reunir con respecto al vehículo que se achatarra para la deducción incrementada (10 %) prevista en la norma foral del impuesto.

Por su parte, la modificación del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades se desarrolla en el artículo 2. Dicho artículo, a su vez, se divide en dos ordinales. El ordinal primero se corresponde con aquellas modificaciones cuyos efectos son aplicables para los periodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2025. El ordinal segundo, por su parte, se corresponde con las modificaciones cuyos efectos son aplicables para los periodos impositivos iniciados desde el 1 de enero de 2025 y hasta 31 de diciembre de 2035.

En el ordinal primero se incluye una nueva redacción del artículo 35 ter, relativo a la participación en la financiación de proyectos de investigación y desarrollo o innovación tecnológica, que incluye un mayor desarrollo reglamentario del artículo 64 bis de la norma foral del impuesto. Asimismo, se añade un artículo 37 duodecies, relativo a la deducción por la implementación de medidas de conciliación de la vida personal, familiar y laboral que desarrolla lo previsto en el artículo 66 quater de la norma foral del impuesto. Por último, se modifica el artículo 43 para incorporar un apartado 3 al artículo, estableciendo que lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 115 de la norma foral del impuesto, relativo a la aplicación del régimen de entidades cualificadas de arrendamiento de inmuebles, es aplicable a los arrendamientos o cesiones de viviendas efectuadas a los programas señalados del Gobierno Vasco o los aprobados por los municipios guipuzcoanos para el retorno del talento local.

El ordinal segundo del artículo 2 modifica el artículo 36 que desarrolla las deducciones por inversiones y gastos vinculados a proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética y la economía circular, al objeto de adecuar su regulación a la modificación del artículo 65 de la norma foral del impuesto por la Norma Foral 2/2025, de 24 de noviembre, por la que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a las modificaciones del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco aprobadas por la Ley 3/2025, de 29 de abril, y se aprueban otras modificaciones tributarias.

La inclusión en la norma foral del impuesto del artículo 65 bis por la mencionada Norma Foral 2/2025, hace necesaria la incorporación de un artículo 36 bis en el reglamento para el desarrollo de aquél, relativo a la participación en la financiación de proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética y la economía circular.

Asimismo la disposición transitoria única establece un régimen transitorio para la solicitud de la acreditación de la deducción por inversiones y gastos vinculados a proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética y la economía circular iniciados en el ejercicio 2025.

Por último, en aras a garantizar la seguridad jurídica en el proceso de revisión del cumplimiento de las medidas de fiscalidad verde cuya vigencia se prevé para el período 2025 a 2035, de acuerdo con lo previsto en la disposición adicional tercera de la reiterada norma foral 1/2025, de 9 de mayo, se añade una disposición adicional tercera al presente decreto foral.

EK\CV GAO-I-2025-08991

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Lehena. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan:

Bat. 13 bis artikulua gehitzen zaio III. tituluko I. kapituluari, eduki honekin:

«13 bis artikulua. Telelanaren modalitatean egindako lanaren gastuak konpentsatzea.

Zergaren foru arauaren 16. artikuluko f) letran xedatutakoaren ondorioetarako, langileak telelanaren modalitatean jardunteagatik jasandako gastuak konpentsatzeko haren esku jartzen diren zenbatekoak diruzko etekintzat hartuko dira, kanpoan utzita Hitzarmen Kolektibo bidez une bakoitzean ezarritakoak gainditzen ez dituztenak, betiere gastu horien merkatu balioaren mugaraino.

Kooperatiba sozietateen kasuan, eta bazkide langileei edo lan bazkideei dagokienez, entrega hori entitatearen funtzionamendua eta araubidea erregulatzen dituzten arauetan xedatutakoaren arabera egin beharko da.»

Bi. 34. artikulua honela geratzen da idatzita:

«34. artikulua. Etxebizitzetatik eratorritako kapital higiezinaren etekina.

1. Zerga honen ondorioetarako, zergaren foru arauaren 63. artikuluko a) letran etxebizitza errentamendutzat hartutakoetatik ondorioztatzen diren kapital higiezinaren etekinen artean sartzen dira etxebizitza horien edo haien gozamen eskubide errealen errentamendu edo lagapenagatik haien titularrek lortzen dituzten etekinak ere, baldin eta jatorri hauetako bat badute:

a) Gipuzkoako udalek tokiko talentua itzularazteko onetsitako programak, itzuleraren unean aldi baterako etxebizitza bat eskura jartzea xede dutenak.

b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 115. artikuluan higiezinen errentamendu jarduera kualifikatua egiten duten entitateentzat ezarrita dagoen araubide berezia aplikatzen duten sozietateei egindako lagapena edo alokairua, baldin eta etxebizitza horiek errentamendu eragiketen xede izan badira sozietatearen aldetik. Ondorio horietarako, etxebizitza errentamendutzat bakar-bakarrik hartuko da Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan definitutakoa.

2. Zergaren foru arauaren 32. artikuluan jasotako gastu kengarriak eta hobariak aplikatzeko, aurreko apartatuan jasotako kasuetan honako hau hartuko da kontuan:

a) a) letraren kasuan, zergaren foru arauaren 32. artikuluko 2. apartatuan jasotakoa aplikatuko da.

b) b) letraren kasuan, zergaren foru arauaren 32. artikuluko 2. apartatuan jasotako hobaria aplikatuko da, salbu eta sozietate errentatzaileak alokairuagatik jasotako errentak 4. apartatuan jarritako baldintzak betetzen baditu; kasu horretan, hobaria 4. apartatu horretan jasotakoa izango da. Arestian aipatutako bi kasuetako edozeinetan aplika daitekeen gastu kengarria

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha

DISPONGO

Artículo 1. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Primero. Con efectos a partir del 1 de enero de 2025 se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre:

Uno. Se añade un artículo 13 bis al capítulo I del título III, con el siguiente contenido:

«Artículo 13 bis. Compensación de gastos por trabajo desarrollado en la modalidad de teletrabajo.

A efectos de lo dispuesto en la letra f) del artículo 16 de la norma foral del impuesto, se considerarán rendimientos del trabajo de naturaleza dineraria las cantidades puestas a disposición de la persona trabajadora en concepto de compensación por los gastos soportados por esta como consecuencia de su trabajo desarrollado en la modalidad de teletrabajo, excepto aquellas que no excedan de los importes establecidos en cada momento por el Convenio Colectivo, hasta el límite del valor de mercado de los citados gastos.

Cuando se trate de sociedades cooperativas y respecto a sus personas socias trabajadoras, o socias de trabajo, dicha entrega deberá efectuarse de acuerdo con lo dispuesto por las normas que regulan el funcionamiento y régimen de la entidad.»

Dos. El artículo 34 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 34. Consideración de rendimiento del capital inmobiliario procedente de viviendas.

1. A efectos de este impuesto se incluyen también entre los rendimientos del capital inmobiliario derivados de los considerados como arrendamiento de vivienda a que se refiere la letra a) del artículo 63 de la norma foral del impuesto, los obtenidos como consecuencia de su arrendamiento o cesión por las personas titulares de las viviendas o de los derechos reales de usufructo que recaigan sobre las mismas, que procedan de:

a) Programas aprobados por los municipios guipuzcoanos para el retorno del talento local, con el objeto de ofrecer una residencia temporal en el momento del retorno.

b) La cesión o alquiler de viviendas a sociedades que se beneficien del régimen especial de Entidades con actividad cualificada de arrendamiento de inmuebles en virtud de lo previsto en el artículo 115 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en la medida en que éstas hayan sido objeto de operaciones de arrendamiento de vivienda por parte de la sociedad. A estos efectos, únicamente se entenderá por arrendamiento de vivienda el definido en el artículo 2 de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos.

2. A los efectos de la aplicación de los gastos deducibles y bonificaciones previstos en el artículo 32 de la norma foral del impuesto, en los supuestos previstos en el apartado anterior se tendrá en cuenta lo siguiente:

a) En el caso de la letra a) será de aplicación lo previsto en el apartado 2 del artículo 32 de la norma foral del impuesto.

b) En el caso de la letra b), será aplicable la bonificación prevista en el apartado 2 del artículo 32 de la norma foral del impuesto, salvo que la renta de alquiler percibida por la sociedad arrendadora cumpla las condiciones establecidas en el apartado 4, en cuyo caso, la bonificación será la prevista en dicho apartado 4. El gasto deducible aplicable en cualquiera de los dos casos

EK\CV GAO-I-2025-08991

zergaren foru arauaren 32. artikuluko 2. eta 4. apartatuen a) letran aipatzen den kanpoko kapitalen interesen zenbatekoa izango da.»

Hiru. 54 ter artikulua gehitzen zaio III. tituluko VII. kapituluari, eduki honekin:

«54 ter artikulua. Telelanaren modalitatean jarduteko ekipoak, tresnak eta bitartekoak entregatzea.

Zergaren foru arauaren 17.2.j) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, urtean 1.000 euroko mugaraino egindako entregak ez dira hartuko gauzazko ordainsaritzat.»

Lau. 63 bis artikulua gehitzen zaio V. tituluko I. kapituluari, eduki honekin:

«63 bis artikulua. Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen zaintzaileak zaintzako profesionaltzat hartzea.

Zergaren foru arauaren 83 bis artikuluko 4. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, artikulu horretan aurreikusitako mendekotasun edo desgaitasun graduren bat aitortuta duten pertsonen zaintza lanetan aritzen direnak zaintzako profesionaltzat hartuko dira baldin eta frogatzen badute horretan jarduteko eskumena dutela apirilaren 18ko 6/2023 Foru Dekretuaren 11.3.f) artikuluan, haren lehen xedapen iragankorrean edo, hala badagokio, hura ordezten duen araudian aurreikusitako titulu edo ziurtagirietako bat aurkeztuta (6/2023 Foru Dekretua, Autonomia Pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak artatzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen prestazio ekonomikoak arautzen dituena).»

Bost. 63 ter artikulua gehitzen zaio V. tituluko I. kapituluari, eduki honekin:

«63 ter artikulua. Adingabeen zaintza lanetan aritu ondoren lan merkatura itzultzea.

1. Zergaren foru arauaren 83 quater artikuluko 2. apartatuaren c) letran xedatutakoaren ondorioetarako, kenkaria aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu zerbitzu publiko batzuetan enplegu eta zerbitzu eskatzaile gisa inskribatu izanaren ziurtagiria, behin lan merkatura itzuli ondoren, eta Enpleguari buruzko otsailaren 28ko 3/2023 Legean aurreikusitako Jarduera Akordioaren formalizazioa aurkeztea.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu zerbitzu publiko batean erregistratutako pertsonek uko egiten badiote enplegu zerbitzu publikoak edo entitate laguntzaile batek egindako enplegu eskaintza bati, lan merkatura itzultzeko baldintza ez dela bete joko da, salbu eta Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 48. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako inguruabarretako bat gertatzen bada.

Lanera itzultzeko baldintza ez bada betetzen, bidegabeki aplikatutako kenkariak ordaindu beharko dira, berandutze interesak barne. Ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, kendutako kopurua gehitu beharko zaio ez-betetzea gertatu den zergaldiko kuota diferentzialari.»

Sei. V. tituluari I bis kapitulua gehitzen zaio, eduki honekin:

«I bis kapitulua. Genero indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima izaera frogatzea.

63 quater artikulua. Genero indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima izaera frogatzea.

Genero indarkeriaren biktima izateari buruz zergaren foru arauaren 86., 87. eta 97. artikuluetan aipatzen den izaera frogatzeko, Genero indarkeriaren aurka osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan aurreikusitako dokumentuetako bat aurkeztu beharko da.

indicados anteriormente, será el importe de los intereses de los capitales ajenos al que se alude en la letra a) de los citados apartados 2 y 4 del artículo 32 de la norma foral del impuesto.»

Tres. Se añade un artículo 54 ter al capítulo VII del título III, con el siguiente contenido:

«Artículo 54 ter. Entrega de equipos, herramientas y medios en la modalidad de teletrabajo.

A efectos de lo dispuesto en el artículo 17.2.j) de la norma foral del impuesto, no se considerará retribución en especie las entregas efectuadas hasta un límite de 1.000 euros anuales.»

Cuatro. Se añade un artículo 63 bis al capítulo I del título V con el siguiente contenido:

«Artículo 63 bis. Personas cuidadoras con consideración de profesional del cuidado de personas con dependencia o discapacidad.

A efectos de lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 83 bis de la norma foral del impuesto, tendrán la consideración de profesionales del cuidado de personas que tengan reconocido alguno de los grados de dependencia o discapacidad previstos en dicho artículo, las personas que acrediten sus competencias mediante cualquiera de los títulos o certificados previstos en el artículo 11.3.f) y en la disposición transitoria primera del Decreto Foral 6/2023, de 18 de abril, por el que se regulan las prestaciones económicas de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia o, en su caso, en la normativa que lo sustituya.»

Cinco. Se añade un artículo 63 ter al capítulo I del título V con el siguiente contenido:

«Artículo 63 ter. Consideración de reincorporación al mercado laboral tras el cuidado de menores.

1. A los efectos de lo dispuesto en la letra c) del apartado 2 del artículo 83 quater de la norma foral del impuesto para la aplicación de la deducción será necesario aportar el certificado de inscripción como demandante de empleo y servicios en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo u otros Servicios Públicos de Empleo, tras la reincorporación al mercado laboral, y la formalización del Acuerdo de Actividad previsto en la Ley 3/2023, de 28 de febrero, de Empleo.

2. Se considerará incumplida la condición de reincorporación al mercado laboral de aquellas personas que, tras su registro en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo o en otros Servicios Públicos de Empleo, rechacen una oferta de empleo realizada por el servicio público de empleo o por una entidad colaboradora, salvo que concurra alguna de las circunstancias previstas en el apartado 2 del artículo 48 de la Ley 14/2022, de 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión.

El incumplimiento de la condición de reincorporación motivará la obligación de ingresar las cantidades deducidas de forma indebida, con los correspondientes intereses de demora. Este ingreso se realizará sumando la cantidad deducida a la cuota diferencial correspondiente al periodo impositivo en que se produzca el incumplimiento.»

Seis. Se añade un capítulo I bis al título V con el siguiente contenido:

«Capítulo I bis. Acreditación de la condición de víctima de violencia de género o violencia doméstica.

Artículo 63 quater. Acreditación de la condición de víctima de violencia de género o violencia doméstica.

A los efectos de acreditar la condición de víctima de violencia de género prevista en los artículos 86, 87 y 97 de la norma foral del impuesto, la misma se acreditará mediante alguno de los documentos previstos en el artículo 23 de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género.

EK\CV GAO-I-2025-08991

Etxeko indarkeriaren kasuan, dagokion ebazpen judizialean xedatutakoari jarraituko zaio.»

Zazpi. 66. artikulua honela geratzen da idatzita:

«66. artikulua. Ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatutako kasuak.

1. Ondoko kasuak ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatzen dira:

a) Etxebizitza handitzea, bizitzeko azalera handitzen denean dela estali gabeko zatiren bat itxiz dela beste edozein bitarteko erabilita, modu iraunkorrean eta urteko sasoi guztietan.

b) Etxebizitza eraikitzea, subjektu pasiboak zuzenean ordaintzen dituenean obren gastuak, edo haien sustatzaileari konturako zenbatekoak ordaintzen dizkionean, baldin eta obrak gehienez ere sei urteko epean amaitzen badira inbertsioa hasi denetik aurrera.

c) Ohiko etxebizitzan egokitze lan eta instalazioak egitea, etxearen eta kalearen artean nahitaezko pasabide gisa erabiltzen diren elementu komunak aldatzea, hala nola eskailerak, igogailuak, korridoreak, atariak edo beste edozein elementu arkitektoniko, eta, era berean, desgaituen edo mendeko pertsonen komunikazio sentsorialaren oztopoak gainditu edo segurtasuna emateko balio duten dispositibo elektronikoak jartzea.

Era berean, kontzeptu honen barruan sartuta daude letra honetako azken paragrafoan aipatu diren pertsonek errentari, azpierrentari edo usufruktudun gisa okupatutako etxebizitzak egokitzeko egiten dituzten obrak eta instalazioak.

Egokitzapen lan eta instalazio horiek beharrezkoak izan behar dute desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen irisgarritasuna eta komunikazio sentsoriala errazteko eta haiek duintasunez eta modu egokian moldatzen direla bermatzeko. Alde horretatik, ezinbestekoa izango da premia hori frogatzea 63. artikuluko 1.a) eta 2. apartatuetan aipatzen diren organoetako batek emandako ziurtagiria aurkeztuta.

Obra horiek desgaitasun edo mendekotasun egoeran dagoen zergadunak egin behar ditu, edo, bestela, desgaitasuna edo mendekotasuna duen aurreko edo ondorengo ahaide, ezkontide edo izatezko bikotekidearekin bizi den zergadunak, zergaren foru arauak 82. artikuluan ezarritako kenkarirako eskubidea ematen dion desgaitu edo mendeko pertsona batekin bizi den zergadunak, edo ohiko etxebizitzaren elementu erkideak aldatzeko lanak ordaintzera behartuta dauden jabekideek.

2. Zergadunari leporatu ezin zaizkion aparteko zirkunstantziengatik obrak ezin badira amaitu 1.b) apartatuan aipatzen den sei urteko epea igaro baino lehen, epe hori beste sei urtez luzatuko da.

Kasu horietan, 64. artikuluaren 2. apartatuko lehen paragrafoan aipatzen den hamabi hilabeteko epea etxebizitzak entregatzen direnetik edo obrak amaitzen direnetik aurrera kontatuko da.

Hasierako epea bete ez den zergaldiko autolikidazioarekin batera, zergadunak etxebizitzan egindako inbertsioen frogagiriak aurkeztu ez ezik aurreko egoera horietakoren bat gertatu izana frogatzen duen beste edozein dokumentu ere erantsi beharko du.

Aurreneko paragrafoan aurreikusitako epearen luzapena behin-behineko izaeraz onartuko da, eta haren aplikazioak hainbat beharkizun betetzea exijituko du, Zerga Administrazioak egiaztatuko dituenak.

En caso de violencia doméstica se atenderá a lo dispuesto en la resolución judicial correspondiente.»

Siete. El artículo 66 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 66. Supuestos asimilados a adquisición de vivienda habitual.

1. Se asimilan a la adquisición de vivienda habitual los siguientes supuestos:

a) Ampliación de vivienda, cuando se produzca el aumento de su superficie habitable, mediante cerramiento de parte descubierta o por cualquier otro medio, de forma permanente y durante todas las épocas del año.

b) Construcción, cuando la persona contribuyente satisfaga directamente los gastos derivados de la ejecución de las obras, o entregue cantidades a cuenta al promotor o promotora de aquéllas, siempre que finalicen en un plazo no superior a seis años desde el inicio de la inversión.

c) Las obras e instalaciones de adecuación que se efectúen en la vivienda habitual, así como las de modificación de los elementos comunes del edificio que sirvan de paso necesario entre la finca urbana y la vía pública, tales como escaleras, ascensores, pasillos, portales o cualquier otro elemento arquitectónico, o las necesarias para la aplicación de dispositivos electrónicos que sirvan para superar barreras de comunicación sensorial o de promoción de seguridad de las personas discapacitadas o en situación de dependencia.

Asimismo, se incluyen dentro de este concepto las obras e instalaciones de adecuación que se efectúen en viviendas ocupadas a título de arrendataria, subarrendataria o usufructuaria por alguna de las personas señaladas en el último párrafo de esta letra.

Las obras e instalaciones de adecuación deberán ser necesarias para la accesibilidad y comunicación sensorial que facilite el desenvolvimiento digno y adecuado de las personas discapacitadas o en situación de dependencia, necesidad que se deberá acreditar mediante certificación emitida por uno de los órganos a que se refiere el artículo 63.1.a) y 2.

Las mencionadas obras deberán efectuarse por la persona contribuyente discapacitada o en situación de dependencia, por la persona contribuyente que conviva con un ascendiente, descendiente, cónyuge o pareja de hecho, que tenga la condición de discapacitado o dependiente, por la persona contribuyente que conviva con una persona discapacitada o dependiente que le origine el derecho a aplicar la deducción contemplada en el artículo 82 de la norma foral del impuesto, así como por las personas copropietarias obligados a abonar las obras de modificación de los elementos comunes de su vivienda habitual.

2. Cuando por circunstancias excepcionales no imputables a la persona contribuyente las obras no puedan finalizarse antes de transcurrir el plazo de seis años a que se refiere el apartado 1.b), dicho plazo quedará ampliado en otros seis años.

En estos casos, el plazo de doce meses a que se refiere el párrafo primero del apartado 2 del artículo 64 comenzará a contarse a partir de la entrega de las viviendas o de la terminación de las obras.

La persona contribuyente deberá acompañar a la autoliquidación del período impositivo en que se hubiese incumplido el plazo inicial, tanto los justificantes que acrediten sus inversiones en vivienda como cualquier otro documento justificativo de haberse producido alguna de las referidas situaciones.

El reconocimiento de la ampliación del plazo previsto en el párrafo primero será provisional y estará condicionado al cumplimiento de los requisitos exigidos para su aplicación, los cuales serán objeto de comprobación por la Administración tributaria.

EK\CV GAO-I-2025-08991

3. Ez dira etxebizitza erosketatzat hartuko:

a) Artapen edo konponketa gastuak, 35. artikuluan jasotako terminoetan.

b) Hobekuntzak.

c) Garaje plazak, lorategiak, parkeak, igerileku eta kirol instalazioak eta, oro har, eranskinak edo beste edozein elementu eskuratzea, betiere ohiko etxebizitzaren kontzeptuan sartzen ez badira 64.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

4. Zergaren foru arauak 87.5.a) artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, zergadunak bere jabetzako lokal batean obrak egiten baditu hura etxebizitza gisa gaitzeko, obra horiek ere ohiko etxebizitzaren birgaiketatzat hartuko dira, baldin eta haren xedea zergadunaren ohiko etxebizitza izatea bada 64. artikuluan jasotako terminoetan.»

Zortzi. V. tituluari II bis kapitulua gehitzen zaio, eduki honekin:

«II bis kapitulua. Kenkaria babestutako birgaiketagatik.

69 bis artikulua. Kenkaria babestutako birgaiketagatik.

Zergaren foru arauaren 87 bis artikuluko hirugarren paragrafoan araututako egokitzapen lan eta instalazioek beharrezkoak izan behar dute desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen irisgarritasuna eta komunikazio sentsoriala errazteko eta haiek duintasunez eta modu egokian moldatzen direla bermatzeko. Alde horretatik, ezinbestekoa izango da premia hori frogatzea 63. artikuluko 1.a) eta 2. apartatuetan aipatzen diren organoetako batek emandako ziurtagiria aurkeztuta.

Aipatutako obrek kenkari honetarako eskubidea emango dute, baldin eta hura egin beharra dakarren desgaitua edo mendeko pertsona honako hauetako bat bada: errentaria bera edo azpierrentaria, errentariarekin eta azpierrentariarekin bizi den aurreko edo ondorengo ahaideren bat, ezkontidea edo izatezko bikotekidea, edo errentariari edo azpierrentariari zergaren foru arauaren 82. artikuluan jasotako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen dion pertsona bat. Era berean, kenkari honetarako eskubidea emango dute errentatzaileak jabetza horizontalaren araudiaren arabera nahitaez ordaindu behar dituen obrek.»

Bederatzi. V bis titulua gehitzen da, eduki honekin:

«V bis titulua. Baterako tributazioa.

71 ter artikulua. Familia unitatea. Modalitateak.

Zergaren foru arauak 97. artikuluko 1. apartatuaren D) letran aurreikusitakoaren ondorioetarako, urteko mantenua zergaldian ordaintzeko obligazioa lege, epai, dekretu edo eskritura publiko bidez ezarri bada, hura ez ordaintzea ez da izango, bere horretan, zaintza duen gurasoaren mantenu ekonomiko esklusiboaren froga, non eta, ordaindu gabeko urteko kuoten zenbatekoa zergaldian zuzenbidez dagozkion kuotena baino 100eko 50 baino handiagoa izanik, ez den frogatzen urteko kuota horiek legez ezarritako bideak erabilita erreklamatu direla.

Urteko mantenua erreklamatu izanaren berririk ez dagoen kasuetan, guraso batek diru-sarrerarik edo ondarerik ez izate hutsak ez dakar berekin beste gurasoak mantenu ekonomiko esklusiboa izatea.

Beste gurasoa atzerrian bizi bada eta urteko mantenua ordaintzeko obligazioa atzerrian ere formalizatu bada, lehen paragrafoan aipatutako erreklamazioa obligazioa ezarri den herrialdean baliokideak diren legezko bideak erabilita bideratu ahal izango da. Kausa ezagunik gabeko ordainketak edo guraso egoiliarrak egin ditzakeen ondare-elementuak doan ematea mantenu-kargari egotzi ahal izango zaio, eta, ondorioz, mantenu ekonomiko partekatua izango da.»

3. No se considerará adquisición de vivienda:

a) Los gastos de conservación o reparación, en los términos previstos en el artículo 35.

b) Las mejoras.

c) La adquisición de plazas de garaje, jardines, parques, piscinas e instalaciones deportivas y, en general, los anexos o cualquier otro elemento siempre que no forme parte del concepto de vivienda habitual de conformidad con lo dispuesto en el artículo 64.1.

4. A los efectos de lo previsto en el artículo 87.5.a) de la norma foral del impuesto, tienen también la consideración de rehabilitación de vivienda habitual las obras ejecutadas por la persona contribuyente en un local de su propiedad con el fin de habilitarlo como vivienda, siempre que la misma vaya a constituir vivienda habitual de la persona contribuyente en los términos previstos en el artículo 64.»

Ocho. Se añade un capítulo II bis al título V con el siguiente contenido:

«Capítulo II bis. Deducción por rehabilitación protegida.

Artículo 69 bis. Deducción por rehabilitación protegida.

Las obras e instalaciones de adecuación reguladas en el tercer párrafo del artículo 87 bis de la norma foral del impuesto deberán ser necesarias para la accesibilidad y comunicación sensorial que facilite el desenvolvimiento digno y adecuado de las personas discapacitadas o en situación de dependencia, necesidad que se deberá acreditar mediante certificación emitida por uno de los órganos a que se refiere el artículo 63.1.a) y 2.

Las mencionadas obras darán derecho a esta deducción cuando la persona en situación de discapacidad o de dependencia que origina la necesidad de su ejecución sea la propia arrendataria o subarrendataria, una ascendiente, descendiente, cónyuge o pareja de hecho que conviva con ella, o una persona que le origine el derecho a aplicar la deducción contemplada en el artículo 82 de la norma foral del impuesto. Así mismo, darán derecho a esta deducción aquellas obras que el arrendador deba satisfacer de acuerdo con la normativa de propiedad horizontal.»

Nueve. Se añade un título V bis con el siguiente contenido:

«Título V bis. Tributación conjunta.

Artículo 71 ter. Modalidades de la unidad familiar.

A efectos de lo previsto en la letra D) del apartado 1 del artículo 97 de la norma foral del impuesto, el impago de las anualidades de alimentos cuya obligación de satisfacción en el periodo impositivo nazca de la ley, sentencia, decreto o escritura pública no constituirá por sí solo prueba del mantenimiento económico exclusivo por parte de la persona progenitora custodia, salvo que, siendo el importe de las anualidades impagadas superior al 50 por 100 de las anualidades a las que hubiera tenido derecho durante el periodo impositivo, se acredite su reclamación por las vías legales oportunas.

En casos en que no conste reclamación de anualidad por alimentos, la mera falta de ingresos o de patrimonio de una persona progenitora no representa mantenimiento económico exclusivo por parte de la otra persona progenitora.

En el caso de que la otra persona progenitora resida en el extranjero y la obligación de satisfacer las anualidades de alimentos se haya formalizado también en el extranjero, la reclamación del párrafo primero podrá sustanciarse por las vías legales equivalentes en el país de origen de la obligación. Los pagos sin causa conocida o la entrega gratuita de elementos patrimoniales que pueda realizar éste al progenitor residente se considerará imputable a la carga de alimentos y en consecuencia constitutivo de mantenimiento económico compartido.»

EK\CV GAO-I-2025-08991

Hamar. Zazpigarren xedapen iragankorra honela geratzen da idatzita:

«Zazpigarren xedapen iragankorra. 65 urtetik gorako pertsonek ohiko etxebizitza kostu bidez eskualdatzeagatik lortutako ondare irabaziak salbuestea.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 44.3.c) artikuluan (2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako idazkeran) aurreikusitako salbuespena aplikatu duten zergadunek ezingo dute aplikatu zergaren foru arauaren 42.1.c) artikuluan jasotzen den salbuespena.»

Hamaika. Beste xedapen iragankor bat gehitzen da, hamalaugarrena, eduki hau duena:

«Hamalaugarren xedapen iragankorra. Kenkaria ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik edo haren pareko egoerengatik 2026ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko kasuetan.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten dituen maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren azken xedapenetako bigarrenak hirugarren marratxoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ulertuko da ohiko etxebizitza 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratu dela edo zergaren foru arauaren 87.5 artikuluan erosketarekin parekatutako kasuen aurrean gaudela, hau gertatzen denean:

a) Ohiko etxebizitza 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi denean, eta data hori baino lehenago haren erosketara edo pareko kasuren batera bideratutako diru kopuru kengarriak ordaindu direnean. Hortik kanpo geratzen da kreditu entitateetan gordailutzen diren kopuruei dagokien kasua, 87.5 artikulu horretako b) letran aipatzen dena.

b) 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen etxebizitza kontuetan diru kopuruak sartu direnean, baldin eta horiek erabiltzeko epea 2025eko abenduaren 31n amaitu ez bada, bai eta etxebizitza kontutik erabilitako kopuruak ohiko etxebizitza erosteko erabiltzen direnean. b) letran aurreikusitakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da zergadunak 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen aplikatzea etxebizitza kontuan sartutako kopuruei dagokien kenkaria, ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik arautua, eta kopuru horiek ez galtzea kengarriak izateko eskubidea erregelamendu honen 71. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.»

Hamabi. Beste xedapen iragankor bat gehitzen da, hamabosgarrena, eduki honekin:

«Hamabosgarren xedapen iragankorra. Gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako gehiegizko ekarpen eta kontribuzioak aplikatzeko hurrenkera, 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen murriztu ez direnean.

2025eko urtarrilaren 1a baino lehen zergadunek egin dituzten ekarpenak edo egotzi dituzten kontribuzioak ez badira zerga oinarri orokorrean murriztu zergaren foru arauaren 71. artikuluko 3. apartatuan, 72. artikuluko 2. apartatuan eta bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko b) letran aurreikusitakoaren arabera, posible izango dute soberakin horiek geratzen diren ekitaldietan aplikatzea, zergaren foru arauaren hogeita hamazortzigarren xedapen iragankorrean eta erregelamendu honen 61. artikuluak 2024ko abenduaren 31n indarrean zeukan idazketan ezarritakoari jarraituta.»

Bigarrena. 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan:

Bat. 45. artikulua honela geratzen da idatzita:

«45. artikulua. Salbuespena ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik.

Diez. La disposición transitoria séptima queda redactada en los siguientes términos:

«Disposición transitoria séptima. Exención de ganancias patrimoniales derivadas de transmisión onerosa de vivienda habitual por personas mayores de 65 años.

La exención prevista en el artículo 42.1.c) de la norma foral del impuesto no será aplicable por parte de las personas contribuyentes que hubieran aplicado la exención prevista en el artículo 44.3.c) de la Norma Foral 10/2006, de 29 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en su redacción vigente a partir del 1 de enero de 2012.»

Once. Se adiciona una disposición transitoria, la decimocuarta, con el siguiente contenido:

«Disposición transitoria decimocuarta. Deducción por inversión en vivienda habitual con adquisición o supuesto asimilado de fecha anterior al 1 de enero de 2026.

A efectos de lo previsto en el tercer guion de la disposición final segunda de la Norma Foral 1/2025, de 9 de mayo, por la que se aprueban la reforma del sistema tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y otras modificaciones tributarias, se considerarán adquisiciones de vivienda habitual y supuestos asimilados previstos en el artículo 87.5 de la norma foral del impuesto que se realicen con anterioridad al 1 de enero de 2026 las siguientes situaciones:

a) Haber adquirido la vivienda habitual con anterioridad a 1 de enero de 2026, así como haber satisfecho con anterioridad a dicha fecha, cantidades con derecho a deducción destinadas a la adquisición o supuestos asimilados, excluido el correspondiente a las cantidades que se depositen en entidades de crédito previsto en la letra b) de dicho artículo 87.5.

b) El depósito con anterioridad a 1 de enero de 2026 de cantidades en cuentas vivienda cuyo plazo para materializarlas no hubiera vencido a 31 de diciembre de 2025, así como la subsiguiente adquisición de la vivienda habitual en la que se materializan las cantidades deducidas de la cuenta vivienda. Para aplicar lo previsto en esta letra b) será necesario que la persona contribuyente hubiera practicado la deducción por inversión en vivienda habitual correspondiente a las cantidades depositadas en la cuenta vivienda con anterioridad a 1 de enero de 2026, sin que a la totalidad de dichas deducciones le hubiera sido de aplicación la pérdida del derecho a deducir prevista en el artículo 71 de este reglamento.»

Doce. Se adiciona una disposición transitoria, la decimoquinta, con el siguiente contenido.

«Disposición transitoria decimoquinta. Orden de aplicación de los excesos de aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social que no hayan sido objeto de reducción con anterioridad a 1 de enero de 2025.

Las personas contribuyentes cuyas cantidades aportadas o las contribuciones imputadas con anterioridad a 1 de enero de 2025 no hubiesen sido objeto de reducción en la base imponible general según lo previsto en el apartado 3 del artículo 71, en el apartado 2 del artículo 72 y en la letra b) del apartado 3 de la disposición adicional novena de la norma foral del impuesto, podrán aplicar, en los ejercicios pendientes, dichos excesos de acuerdo con lo establecido en la disposición transitoria trigésima octava de la norma foral del impuesto, y en el artículo 61 de este reglamento, en su redacción vigente a 31 de diciembre de 2024.»

Segundo. Con efectos a partir de 1 de enero de 2026 se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre:

Uno. El artículo 45 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 45. Exención por reinversión en vivienda habitual.

EK\CV GAO-I-2025-08991

1. Zergadunaren ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik lortzen diren ondare irabaziak zergapetu gabe gera daitezke, baldin eta etxebizitzaren aldaketa justifikatzen duen zirkunstantziaren bat betetzen dela frogatu eta eskualdaketa horretan lortutako zenbateko osoa beste ohiko etxebizitza bat eskuratzeko berrinbertitzen bada artikulu honetan ezartzen diren baldintzetan. Eskualdatutako etxebizitza erosteko zergadunak besteren finantzaketa erabili behar izan badu, lortutako zenbateko osotzat hartuko da, ondorio horietarako eta ez bestetarako, eskualdaketaren unean amortizatzeke dagoen maileguaren tronkoa eskualdaketa baliotik gutxituta ateratzen dena.

Ondorio horietarako, etxebizitza birgaitzea erosketarekin parekatzen da, zergaren foru arauak 87.6. artikuluan ezarritako terminoetan.

Etxebizitza ohikotzat hatzeko, zergaren foru arauaren 87.8 artikuluan eta erregelamendu honen 64. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Orobat, familiaren etxebizitzaren eskualdaketan lortutako ondare irabaziak zergapetu gabe gera daitezke baldin eta, etxebizitza hori aurreko momentu batean zergadunaren ohiko etxebizitza izan ondoren, zergadunak bertan bizitzeari utzi badio senar-emazteak banantzeko edo izatezko bikotea desegiteko prozedura batean epaileak hala erabaki duelako.

Apartatu honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko, eskualdaketa egin behar da etxebizitza hori familia etxebizitzatzat hartzen den bitartean, eta, gehienez ere, bi urteko epean izaera hori galtzen duenetik aurrera.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako, familiaren etxebizitzatzat hartuko da ezkontideak edo izatezko bikotekideak eta, halakorik bada, ondorengo ahaideek bizitzeko erabiltzen dutena, senar-emazteak banandu edo izatezko bikotea desegiteko prozedura batean epaileak hala erabaki eta gero.

3. Etxebizitza aldatzea justifikatzen duen zirkunstantzia bat gertatzen dela ulertuko da, eskualdatutako etxebizitza erosi ondoren, etxebizitzaren titularra den zergaduna honako zirkunstantzia hauetakoren batean dagoenean:

a) Etxebizitza ez egokitzea familiaren, zergadunaren edo bizikideen beharretara. Alde horretatik, etxebizitza ez dela egokitzen joko da, besteak beste, honako kasu hauetan:

a') Bizikidetza unitateko kide kopurua handitu edo txikitu denean.

b') Bizikidetza unitateko kideren bati desgaitasun edo mendekotasun egoera bat aitortzen zaionean.

c') Zirkunstantzia medikoak direla-eta, etxebizitzaren ezaugarriak ez direnean egokiak bizikidetza unitateko kideren batentzat.

b) Lantokiz aldatzea edo lehendabiziko enplegua edo enplegu berria lortzea. Horri dagokionez, etxebizitza aldaketa justifikatuta egongo da, besteak beste, kasu hauetan:

a') Eskualdatutako etxebizitza kokatuta dagoen udalerria ez den beste batean enplegu berri bat edo lehen enplegu bat lortzen denean.

b') Langilea atxikita dagoen lantokia lekuz aldatzen denean.

c') Lanpostuaren baldintzak aldatzen direnean edo langileak atxikia duen lanpostua aldatzen denean.

c) Ezkontza edo izatezko bikotea eratzea, baita ezkontideak banantzea edo izatezko bikotea azkentzea ere.

1. Podrán excluirse de gravamen las ganancias patrimoniales obtenidas por la transmisión de la vivienda habitual de la persona contribuyente, siempre que concurra alguna circunstancia que justifique el cambio de vivienda y el importe total obtenido en la transmisión se reinvierta en la adquisición de una nueva vivienda habitual, en las condiciones que se establecen en este artículo. Cuando para adquirir la vivienda transmitida el contribuyente hubiera utilizado financiación ajena, se considerará, exclusivamente a estos efectos, como importe total obtenido, el resultante de minorar el valor de transmisión en el principal del préstamo que se encuentre pendiente de amortizar en el momento de la transmisión.

A estos efectos, se asimila a la adquisición de vivienda su rehabilitación, en los términos previstos en el artículo 87.6 de la norma foral del impuesto.

Para la calificación de la vivienda como habitual, se estará a lo dispuesto en el artículo 87.8 de la norma foral del impuesto y en el artículo 64 de este reglamento.

2. Asimismo, podrán también excluirse de gravamen las ganancias patrimoniales obtenidas por la transmisión de la vivienda familiar que hubiera tenido para el contribuyente la consideración de vivienda habitual en un momento anterior, cuando dicho contribuyente hubiera dejado de residir en la misma por decisión judicial en un procedimiento de separación matrimonial o extinción de la pareja de hecho.

Para aplicar la exención prevista en este apartado, la transmisión se deberá efectuar mientras tenga la consideración de vivienda familiar y, como máximo, en el plazo de dos años desde que dejara de tener tal consideración.

A los efectos previstos en este apartado, tendrá consideración de vivienda familiar aquella en la que residan el cónyuge o pareja de hecho y, en su caso, sus descendientes, como consecuencia de la decisión judicial adoptada en un procedimiento de separación matrimonial o extinción de la pareja de hecho.

3. Se considerará que concurre una circunstancia que justifica el cambio de vivienda cuando, con posterioridad a la adquisición de la vivienda transmitida, en la persona contribuyente titular de la vivienda concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Inadecuación de la vivienda a las necesidades familiares, de la persona contribuyente o de las personas convivientes. A este respecto se considerará que la vivienda resulta inadecuada, entre otros supuestos, cuando:

a') Se haya producido un incremento o decremento en el número de miembros de la unidad convivencial.

b') A alguno de los miembros de la unidad convivencial le sea reconocida una situación de discapacidad o de dependencia.

c') Por circunstancias médicas, las características de la vivienda resulten inapropiadas para algún miembro de la unidad convivencial.

b) El traslado laboral o la obtención de un primer o nuevo empleo. A este respecto se considerará que justifican el cambio de vivienda, entre otros supuestos, los siguientes:

a') La obtención de un nuevo o primer empleo en un término municipal distinto al de ubicación de la vivienda transmitida.

b') El cambio del centro de trabajo al que esté adscrita la persona trabajadora.

c') La modificación en las condiciones del puesto de trabajo o cambio en el puesto de trabajo al que esté adscrita la persona trabajadora.

c) La celebración de matrimonio o la constitución de la pareja de hecho, así como la separación matrimonial o la extinción de la pareja de hecho.

EK\CV GAO-I-2025-08991

d) Zirkunstantzia ekonomikoek etxebizitzaren ordainketa eragoztea. Horri dagokionez, zirkunstantzia horiek gertatzen direla ulertuko da, besteak beste, honako kasu hauetan:

a') Etxebizitzaren titularrak diren zergadunetako batek lana galtzen duenean.

b') Etxebizitzaren titularrak diren zergadunetako bati lan, lanbide edo merkataritza jarduerarekin jarraitzea eragozten dion ezgaitasun bat aitortzen zaionean.

c') Etxebizitzaren erosketa finantzatu zuen hipoteka mailegutik eratorritako ordainketa konpromisoek etxebizitzaren titular den edo diren zergadunen errenta erabilgarriaren 100eko 30 baino gehiago konprometitzen dutenean. Ondorio horietarako, pertsona horien errenta erabilgarritzat hartuko da haien zerga oinarrien batura ken, hala badagokio, pertsona horiek zerga honengatik jasandako kuota likidoen batura.

d') Etxebizitzaren titularrak diren zergadunetako bat hartzekodunen konkurtsoan deklaratua izan denean.

e') Eskualdatutako etxebizitza barnean hartzen duen jabeen erkidegoak aurreikusita daukanean eraikina birgaitzeko edo hobetzeko obrak egitea, baldin eta obra horien kostua proportzionalki handia bada. Egin beharreko obrek proportzionalki kostu handia dakartela ulertuko da, baldin eta, etxebizitzaren partaidetza kuotaren arabera, zergadunarentzat etxebizitzaren katastro balioaren 100eko 5etik gorakoak badira.

e) Jarduera ekonomikoen titularren kasuan, etxebizitza aldaketa justifikatzen dela ulertuko da, besteak beste, honako kasu hauetan:

a') Jarduera ekonomikoa bertan behera uzten denean, ekonomikoki bideragarria ez delako.

b') Etekin garbia nabarmen murriztu denean aurreko ekitaldietan izandakoarekin alderatuta. Ondorio horietarako, murriztapena nabarmena dela joko da baldin eta bi zergaldi jarraitutako etekin garbia 100eko 20 baino gehiago murriztu bada aurreko hiru ekitaldietan lortutako etekin garbiaren batez bestekoarekin alderatuta.

e) letra honetan xedatutakoa etxebizitza aldaketa justifikatzeko arrazoitzat hartu ahal izan dadin, jarduera ekonomikoak zergadunaren errenta iturri nagusia izan beharko du. Jarduera ekonomikoa zergadunaren errenta iturri nagusitzat hartuko da haren etekin garbia jarduera ekonomikoen eta lan pertsonalaren etekin guztien 100eko 50 baino handiagoa denean.

4. Salmentan lortutako zenbateko osoa eskualdaketa egin eta gehienez bi urteko epean berrinbertitu behar da, dena batera edo ondoz ondoko alditan.

Salmenta epeka edo prezio geroratuarekin egiten denean, berrinbertsioa epe barruan egin dela ulertuko da baldin eta epeen zenbatekoa adierazitako helbururako erabiltzen bada epeak jasotzen diren zergaldiaren barruan.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera, berrinbertsioa ez bada egiten eskualdaketaren urte berean, zergadunaren obligazioa da ondare irabazia lortu duen ekitaldiko zergaren autolikidazioan adieraztea ondare irabazi hori lehen esandako baldintza eta epeetan berrinbertitzeko asmoa duela.

Era berean, berrinbertsioagatiko salbuespena aplika dakieke etxebizitza besterenduta lortutako kopuruei, ohiko etxebizitza eskualdatu aurreko bi urteetan erositako ohiko etxebizitza berria ordaintzeko erabiltzen badira.

d) Circunstancias de carácter económico que impidan satisfacer el pago de la vivienda. A este respecto se considerará que concurren dichas circunstancias, entre otros supuestos, cuando:

a') Se produzca la pérdida del empleo por parte de alguna de las personas contribuyentes titulares de la vivienda.

b') A alguna de las personas contribuyentes titulares de la vivienda le sea declarada una incapacidad que determine la imposibilidad de continuar con su actividad laboral, profesional o mercantil.

c') Los compromisos de pago derivados del préstamo hipotecario que financió la adquisición de la vivienda comprometan más del 30 por 100 de la renta disponible de la persona o personas contribuyentes titulares de la vivienda. A estos efectos, se considerará renta disponible de dichas personas el sumatorio de sus bases imponibles minorado, en su caso, en el importe del sumatorio de las cuotas líquidas de este impuesto soportadas por las mismas.

d') Alguna de las personas contribuyentes titulares de la vivienda haya sido declarada en concurso de acreedores.

e') La comunidad de propietarios en la que se integra la vivienda transmitida tenga previsto afrontar obras de rehabilitación o mejora de la edificación que supongan un coste proporcionalmente elevado. Se considerará que las obras a ejecutar suponen un coste proporcionalmente elevado cuando representen, en función de la cuota de participación de la vivienda, un importe superior al 5 por 100 del valor catastral de la vivienda para la persona contribuyente.

e) En el caso de titulares de actividades económicas, se considerará que justifican el cambio de vivienda, entre otros supuestos, los siguientes:

a') El cese de la actividad económica como consecuencia de su inviabilidad económica.

b') Una reducción sustancial del rendimiento neto respecto al obtenido en ejercicios anteriores. A estos efectos, se considerará que la reducción es sustancial cuando el rendimiento neto de dos periodos impositivos consecutivos se haya reducido en más del 20 por 100 respecto a la media del rendimiento neto obtenido en los tres ejercicios precedentes.

Para que lo dispuesto en esta letra e) se pueda considerar causa justificativa del cambio de vivienda, la actividad económica deberá constituir la principal fuente de renta de la persona contribuyente. Se considerará que la actividad económica constituye la principal fuente de renta de la persona contribuyente cuando su rendimiento neto represente más del 50 por 100 de la totalidad de los rendimientos de actividades económicas y del trabajo personal.

4. La reinversión del importe total obtenido en la enajenación deberá efectuarse, de una sola vez o sucesivamente, en un período no superior a dos años desde la fecha de transmisión.

Se entenderá que la reinversión se realiza dentro de plazo cuando la venta se hubiese efectuado a plazos o con precio aplazado, siempre que el importe de los plazos se destine a la finalidad indicada dentro del período impositivo en que se vayan percibiendo.

Cuando, conforme a lo dispuesto en los párrafos anteriores, la reinversión no se realice en el mismo año de la enajenación, la persona contribuyente vendrá obligada a hacer constar en la autoliquidación del impuesto del ejercicio en el que se obtenga la ganancia de patrimonio su intención de reinvertir en las condiciones y plazos señalados.

Igualmente darán derecho a la exención por reinversión las cantidades obtenidas en la enajenación que se destinen a satisfacer el precio de una nueva vivienda habitual que se hubiera adquirido en el plazo de los dos años anteriores a la transmisión de la vivienda habitual.

EK\CV GAO-I-2025-08991

5. Berrinbertsioaren zenbatekoa salmentan lortutakoa baino txikiagoa denean, artikulu honetako baldintzetan inbertitutako kopuruari dagokion ondare irabaziaren zati proportzionala bakarrik salbuetsiko da zergatik.

6. Artikulu honetan ezartzen diren baldintzetako edozein ez betetzeak dagokion ondare irabazia zergapetzea ekarriko du berekin.

Kasu horretan, zergaduna behartuta egongo da salbuetsi gabeko ondare irabazia hura lortu den urteari egoztera, eta, horretarako, autolikidazio osagarri bat aurkeztu beharko du, bidezkoak diren berandutze interesak barruan sartuta. Autolikidazio osagarri hori aurkezteko epea baldintza betetzen ez den egunean hasi eta ez-betetzea gertatu den zergaldiari dagokion autolikidazioa aurkezteko azken egunean amaituko da.»

Bi. Urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 100. artikuluaren 1. apartatua eta 4. apartatuko eskala honela geratzen dira idatzita:

«1. Atxikipen portzentajeen taula orokorra:

5. En el caso de que el importe de la reinversión fuera inferior al total obtenido en la enajenación, solamente se excluirá de gravamen la parte proporcional de la ganancia patrimonial que corresponda a la cantidad efectivamente invertida en las condiciones de este artículo.

6. El incumplimiento de cualquiera de las condiciones establecidas en este artículo determinará el sometimiento a gravamen de la ganancia patrimonial correspondiente.

En tal caso, la persona contribuyente imputará la parte de la ganancia patrimonial no exenta al año de su obtención, practicando autoliquidación complementaria, con inclusión de los correspondientes intereses de demora. Esta autoliquidación complementaria se presentará en el plazo que medie entre la fecha en que se produzca el incumplimiento y la finalización del plazo reglamentario de autoliquidación correspondiente al período impositivo en que se produzca dicho incumplimiento.»

Dos. Se modifica el apartado 1 y la escala del apartado 4 del artículo 100 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre que quedan redactados en los siguientes términos:

«1. Tabla general de porcentajes de retención:

Urteko etekina (€) *Importe rendimiento anual (€)*		*Ondorengo ahaideen kopurua* *Número de descendientes*						
Behe muga *Desde*	*Goi muga* *Hasta*	*0*	*1*	*2*	*3*	*4*	*5*	*Gehiago* *Más*
0,00	20.000,00	0	0	0	0	0	0	0
20.000,01	20.510,00	7	5	3	0	0	0	0
20.510,01	21.300,00	8	6	4	1	0	0	0
21.300,01	22.150,00	9	7	5	2	0	0	0
22.150,01	23.220,00	10	9	7	4	0	0	0
23.220,01	24.050,00	11	10	8	5	1	0	0
24.050,01	25.410,00	12	11	9	6	3	0	0
25.410,01	27.440,00	13	12	10	7	4	0	0
27.440,01	29.790,00	14	13	11	9	6	2	0
29.790,01	32.610,00	15	14	13	10	8	4	0
32.610,01	36.350,00	16	15	14	12	9	6	0
36.350,01	40.670,00	17	16	15	13	11	8	0
40.670,01	44.560,00	18	17	16	15	13	10	2
44.560,01	48.060,00	19	18	17	16	14	12	4
48.060,01	52.020,00	20	19	18	17	15	13	7
52.020,01	56.780,00	21	20	20	18	17	15	9
56.780,01	61.820,00	22	21	21	20	18	16	11
61.820,01	65.710,00	23	22	22	21	19	18	12
65.710,01	70.080,00	24	23	23	22	21	19	14
70.080,01	75.020,00	25	25	24	23	22	20	16
75.020,01	80.730,00	26	26	25	24	23	22	17
80.730,01	86.770,00	27	27	26	25	24	23	19
86.770,01	92.190,00	28	28	27	26	25	24	21
92.190,01	98.350,00	29	29	28	27	27	25	22
98.350,01	105.380,00	30	30	29	29	28	27	23
105.380,01	113.180,00	31	31	30	30	29	28	25

EK\CV GAO-I-2025-08991

Urteko etekina (€) *Importe rendimiento anual (€)*		*Ondorengo ahaideen kopurua* *Número de descendientes*						
Behe muga *Desde*	*Goi muga* *Hasta*	*0*	*1*	*2*	*3*	*4*	*5*	*Gehiago* *Más*
113.180,01	122.030,00	32	32	31	31	30	29	26
122.030,01	132.200,00	33	33	32	32	31	30	28
132.200,01	144.140,00	34	34	33	33	32	32	29
144.140,01	157.300,00	35	35	34	34	33	33	31
157.300,01	172.280,00	36	36	36	35	35	34	32
172.280,01	190.410,00	37	37	37	36	36	35	33
190.410,01	212.820,00	38	38	38	37	37	36	35
212.820,01	236.060,00	39	39	39	38	38	37	36
236.060,01	Hortik Aurrera / En adelante	40	40	40	39	39	39	37»

«*Urteko etekina (€)* *Importe rendimiento anual (€)*		*Desgaitasun maila* *Grado de discapacidad*		
Behe muga *Desde*	*Goi muga* *Hasta*	*4.a) apartatua* *Apartado 4.a)*	*4.b) apartatua* *Apartado 4.b)*	*4.c) apartatua* *Apartado 4.c)*
0,00	25.410,00	9	12	
25.410,01	32.610,00	7	12	
32.610,01	48.060,00	6	10	
48.060,01	56.780,00	5	10	
56.780,01	80.730,00	4	8	
80.730,01	122.030,00	3	6	
122.030,01	190.410,00	2	5	
190.410,01	Hortik aurrera /En adelante	1	3»	

Hirugarrena. 2025etik 2029ra bitarteko ekitaldietan ondorioak izateko, beste xedapen gehigarri bat, hamabosgarrena, sartzen da urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan:

«Hamabosgarren xedapen gehigarria. Ohiko etxebizitza alokatzeagatik araututako kenkariaren zenbatekoa abonatzea kuota osoa nahikoa ez izateagatik.

1. Ohiko etxebizitza alokatzeagatik zergaren foru arauaren berrogeita hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusten den kenkariaren kasuan kuota osoa nahikoa ez izateagatik zenbat abonatu behar den kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko kenkariaren oinarriaren parte izan diren laguntzak eta dirulaguntzak, zergaren foru arauaren 86. artikuluan xedatutakoarekin bat.

2. Baterako tributazioa aukeratzen bada eta familia unitatea osatzen duten zergadunetako batek zergaren foru arauaren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera autolikidatzeko obligazioa badu, aurreko apartatuan aipatutako berrogeita hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako abonua ezingo da egin.»

Laugarrena. 2025etik 2035era bitarteko ekitaldietan ondorioak izateko, V. kapitulu bat gehitzen zaio urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko V. tituluari:

«V. kapitulua. Kenkariak mugikortasun jasangarriaren eta efizientzia eta trantsizio energetikoaren eremuan.

71 bis artikulua. Kenkariak mugikortasun jasangarriaren eta efizientzia eta trantsizio energetikoaren eremuan.

Tercero. Con efectos para los períodos impositivos 2025 a 2029 se introduce una nueva disposición adicional, la decimoquinta en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre, con el siguiente contenido:

«Disposición adicional decimoquinta. Abono por insuficiencia de cuota íntegra de la deducción por alquiler de vivienda habitual.

1. Para el cálculo del importe a abonar por insuficiencia de cuota íntegra de la deducción por alquiler de vivienda habitual prevista en la disposición adicional cuadragésima tercera de la norma foral del impuesto, no se tendrán en cuenta las ayudas y subvenciones que hayan formado parte de la base de la deducción, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 86 de la Norma Foral del impuesto.

2. En los supuestos en que se opte por la tributación conjunta y uno de los contribuyentes que integren la unidad familiar tenga obligación de autoliquidar conforme a lo dispuesto en el artículo 101 de la norma foral del impuesto no procederá el abono previsto en la disposición adicional cuadragésima tercera mencionada en el apartado anterior.»

Cuarto. Con efectos para los periodos impositivos 2025 a 2035 se introduce un capítulo V al título V en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre, con el siguiente contenido:

«Capítulo V. Deducciones en el ámbito de la movilidad sostenible, la eficiencia y la transición energética.

Artículo 71 bis. Deducciones en el ámbito de la movilidad sostenible, la eficiencia y la transición energética.

EK\CV GAO-I-2025-08991

Ingurumena errespetatzen duten ibilgailu jakin batzuk erosteagatik araututako kenkarian 100eko 10eko portzentajea aplikatzeko, zergaren foru arauaren 90 quinquies artikuluko 2. apartatuan aurreikusi bezala, beharrezkoa izango da, batetik, txatarrera eramango den ibilgailuari behin betiko baja ematea Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan, eta, bestetik ibilgailuaren suntsiketari edo ingurumen tratamenduari buruzko ziurtagiria aurkeztea.

Txatarrera eramatekoa den ibilgailuak M1 kategoriako turismo ibilgailu bat izan beharko du, gasolina edo diesel motor bidez soilik propultsatua, eta Espainian matrikulatuta egon beharko du behin betiko bajaren data baino zazpi urte lehenagotik gutxienez. Zergadunak txatar bihurtuko den ibilgailuaren titular izan behar du hura txatarrera eraman aurreko hamabi hilabeteetan gutxienez, eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren azken ordainagiria ere aurkeztu beharko du, behar bezala ordainduta.»

2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Lehena. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ondorioak izateko, aldaketa hauek sartzen dira Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduan, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsian:

Bat. 35 ter artikulua honela geratzen da idatzita:

«35 ter artikulua. Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzea.

1. Ulertuko da zergadun batek beste zergadun baten ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektu baten finantzaketan parte hartzen duela zergaren foru arauaren 64 bis artikuluan xedatutakoarekin bat, diru-kopuruak jartzen dituenean proiektuaren kostuak osorik edo partez ordaintzeko, proiektua egiten duenaren aldetik kopuru horiek zertan itzuli gabe.

2. Itzuli behar ez diren ekarpen horiek, aurreko apartatuan aipatuak, gastuak eta inbertsioak egin aurretik edo egin ondoren egin ahal izango dira, baina inoiz ez proiektua amaitzen den zergaldia bukatu eta gero.

3. Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuaren kostuak zergaren foru arauaren 64 bis artikuluaren arabera finantzatzen badira, ekarpena jasotzen den zergaldian gertatu behar dira.

4. Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak eta haren finantzaketan parte hartzen duenak finantzaketa kontratu bat sinatu beharko dute, zergaren foru arauaren 64 bis artikuluko 3. apartatuan jasotako edukiarekin.

5. Zergaren foru arauaren 64 bis artikuluko 7. apartatuaren arabera Zerga Administrazioari egin behar zaion komunikazioa proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak aurkeztuko du, finantzaketa kontratua formalizatzen den zergaldia amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan beranduenik.

Aurkezpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da, eta, gutxienez, informazio hau jaso beharko du:

a) Aurreko 4. apartatuan aipatutako finantzaketa kontratua.

b) Zergaren foru arauaren 64 bis artikuluaren 2. apartatuko d) letran aipatzen den txosten arrazoitua, edo, halakorik oraindik egin ez bada, hura eskatu izanaren frogagiria.

c) Finantzaketa kontratuaren egituraketan esku hartzen duen bitartekariarekin sinatutako kontratuaren kopia, hala badagokio.

A los efectos de la aplicación del porcentaje del 10 por 100 en la deducción por la adquisición de determinados vehículos respetuosos con el medio ambiente, prevista en el apartado 2 del artículo 90 quinquies de la norma foral del impuesto, será necesaria la baja definitiva del vehículo a achatarrar en el Registro de Vehículos de la Dirección General de Tráfico, así como el certificado de destrucción o tratamiento medioambiental del mismo.

El vehículo a achatarrar deberá ser un vehículo turismo de categoría M1 propulsado exclusivamente por motor de gasolina o diésel, matriculado en España al menos siete años antes de la fecha de baja definitiva. La persona contribuyente deberá ostentar la titularidad del vehículo a achatarrar al menos durante los doce meses anteriores a la fecha de achatarramiento, así como presentar el último recibo del impuesto de vehículos de tracción mecánica, debidamente abonado.»

Artículo 2. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades.

Primero. Con efectos para los periodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2025 se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio:

Uno. El artículo 35 ter queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 35 ter. Participación en la financiación de proyectos de investigación y desarrollo o innovación tecnológica.

